

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2009ko ekainaren 10ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

9.- KULTUR EKINTZETAN LAGUNTZA LANAK EMOTeko ZERBITZU KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.

Xedea

Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzu kontratua behin betiko esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2009ko maiatzaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko kontratua behin-behineko esleitzea erabagi eban.

Bigarrena: 2009ko maiatzaren 22an behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

Argudioak

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegaziorik ez erreklamaziorik jaso.

Bestalde, behin-behineko proposatutako esleipendunak bere eginbeharrak emondako epean bete dauz eta, ondorioz, legeko urrats guztiak bete dira behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko kontratua Bermiopost SL enpreari behin betiko esleitzea, eta esleipendunari jakinarazotea 10 laneguneko epean kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespénaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 12an.

ONETSIA
ALKATEA